

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### MUGIKORTASUNAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA

##### Administrazio Zerbitzua

#### **Alegazioak ebaztea eta behin betiko onestea Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana (2021-2025)**

Gasteizko Udalak 2022ko maiatzaren 20ko bilkuran hasierako onespina eman zion Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planari (2021-2025) eta erabaki hori jendarean jarri zen 45 egunez ALHAOn bidez, interesdunek erreklamazioak eta iradokizunak aurkez zitzen.

2022ko urriaren 28an, aurkeztutako erreklamazioak eta iradokizunak ebatzi ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana (2021-2025) behin betiko onestea, onartutako zuzenketekin.

Horregatik guztiagatik, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren ebazpen-zatia argitaratzen da. Honela dio:

Lehena. Ezestea APROSER - Segurtasun Konpainia Pribatuen Elkarte Profesionalak, Ensanche XIX elkarteak, Francisco Javier Crespo Ruiz de Gaunak eta Gamarrako administrazio-batzarrak aurkeztutako alegazioak, udal teknikariek 2022ko urriaren 25ko alegazioei buruz egindako txostenean proposatzen duten moduan. Txosten hori dosierrean jasota dago.

Bigarrena. Aintzat hartzea parte batean Gasteizko Bizikletako Ciclistas Urbanos elkarteak eta Aenkomer Arabako Merkataritza eta Zerbitzu Enpresaburuen Federazioak aurkeztutako alegazioak, udal teknikariek 2022ko urriaren 25ko alegazioei buruz egindako txostenean proposatzen duten moduan. Txosten hori dosierrean jasota dago.

Hirugarrena. Behin betiko onestea Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planaren (2021-2025) berrikuspina eta egokitzapena, alegazioak parte batean aintzat hartzearen ondorioz testuan egindako aldaketak sartu ondoren, udal teknikariek 2022ko urriaren 25ko alegazioei buruz egindako txostenean proposatzen duten moduan. Txosten hori eranskin gisa sartu da ebazpen honetan.

Laugarrena. Erabaki honen iragarkia ALHAOn argitaratzea, eta Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana (2021-2025) Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan.

Bosgarrena. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Nolanahi ere, alde aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte. Horren ondoren berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, dago-kion araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Dosierra Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Sailaren egoitzan egongo da eskuragarri San Martineko udal bulegoak, Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, 4.solairua, Gasteiz, 08:30etik 14:00etara, astegunez, herritarrek kontsultatu eta egokitzen jotzen dituzten ohar eta alegazioak aurkezterik izan dezaten.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko azaroaren 15ean

*Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Saileko administrazio-burua*  
*JAVIER LARRIETA CENDEGUI*